

Egoitza fiskala, Euskadin

PERTSONA FISIKOAK

Egoitza Euskadin dagoela zehazteko irizpidea: Euskadiko ohiko egoiliarra izatea

Euskadiko ohiko egoiliarra nor den

Betekizuna:	Espainiako egoiliarra izatea			
Irizpideak	Espainian 183 egun baino gehiago egon diren zergadunak	Euskadin egotea egunik gehien	Zergaldiko egunik gehien	PFEZ
			Aurreko urteko egunik gehien	ODZ, OEEJDZ eta Zenbait Garraibideren gaineko Zerga
			Zergaren sortzapenean PFEZren arabera egoiliartasuna	Gainerako zergak
	Euskadin interes-gune nagusia izatea (PFEZren zerga-oinarriaren zatirik handiena lortzea)			
	Euskadin azken egoitza aitortu izana PFEZren ondorioetarako			
Iruzurraren kontrako arauak:	Espainian 183 egun baino gutxiago egon diren zergadunak	Euskadin interes-gune nagusia edota ekonomi- nahiz lanbide-jardueren gunea izatea		
		Ezkontidea eta adingabeko seme-alabak Euskadiko ohiko egoiliarrak izatea		
Iruzurraren kontrako arauak:	<ul style="list-style-type: none"> • Ulertuko da egoiliartasuna ez dela aldatu baldin eta aldaketaren helburu nagusia zerga gutxiago ordaintzea bada • Egoitza-aldaketa Arbitraje Batzordearen ebazpenez edo administrazio bien akordioz gertatu bada, uste izango da, kontrakoaren frogarik ezean, egoitza berria hurrengo hiru urteetan mantenduko dela 			

PERTSONA JURIDIKOAK

Egoitza Euskadin dagoela zehazteko irizpidea: sozietatearen egoitza Euskadin izatea

Betekizuna:	Administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Euskadin zentralizatuta egotea
Irizpide subsidiarioa	Ibilgetuaren balio gehien duten ondasunak kokatuta dauden lekua
Iruzurraren kontrako araua:	<ul style="list-style-type: none"> • Egoitza ez dela aldatu uste izango da aldaketaren aurreko urtean edo ondorengo urtean erakundeak jarduerarik ez badu edo jarduerari utzi badio • Egoitza-aldaketa Arbitraje Batzordearen ebazpenez edo administrazio bien akordioz gertatu bada, uste izango da, kontrakoaren frogarik ezean, egoitza berria hurrengo hiru urteetan mantenduko dela

ESTABLEZIMENDU IRAUNKORRAK, SOZIETATE ZIBILAK ETA NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEAK

Egoitza Euskadin dagoela zehazteko irizpidea: administrazioaren kudeaketa edota negozioen zuzendaritza Euskadin zentralizatuta egitea

Irizpide subsidiarioa	Ibilgetuaren balio gehien duten ondasunak kokatuta dauden lekua
-----------------------	---